

Prentsa oharra

Nota de prensa



ITSASOS KANPAINAK KE TXARRIK ETA ZIGARRO-MUTURRIK GABEKO HONDARTZAK GOMENDATZEN DITU

Donostiako Udalak, Ekologiako zinegotzitzaren bitartez, ItsaSOS kanpainaren beste fase bati ekin dio, eta ke txarrik eta hondarretan sartutako edo utzitako zigarro-muturrik gabeko hondartzak gomendatzen ditu.

Ildo horretan, Marisol Garmendia zinegotziak adierazi du kontziente izan behar dugula sortzen dugun eta oharkabean edo gizalegerik gabe jokatzeagatik lurtean abandonatuta uzten dugun edozein hondakin gure itsasoetara, hondartzetara doala. Hori ingurumenarentzat eta guretzat da txarra, gero horren ondorioak nozitzen baititugu hondartzan bainatzean edo eguzkia hartzean.

Arazo nagusia plastikoak dira, itsas zaborraren % 80 baitira dagoeneko. Arrainetan mikroplastikoak aurkitu dituzte jada, eta, arrain horiek harrapatuta, geuk irensten ditugu gero mikroplastikook.

“Beste arazo bat zigarro-muturrak dira, tabakoaren hondarrak”, Garmendiaren esanetan. ItsaSOS kanpainaren bidez, “hondartzetan ez erretzea gomendatzen ari gara. Gomendio horrek, batez ere, osasunarekin du zerikusia, baina baita hondakinak sortzearekin ere, zoritxarrez hondarretan lurperatzen ditugu-eta gero hondakin horiek. Gure hondartzetako hondakinik ugariena dira: Kontxan biltzen den zaborraren % 38 eta Ondarretako zaborraren % 50.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Hondartzetako sarrera guztietan ez erretzea gomendatzen du Donostiak kartelen bidez. Mezuarekin batera datorren argazkian, zigarro-muturrak ikusten dira, Donostiako hondartzak zikintzen.

Hori dela eta, uztailaren 1etik aurrera hautsontziak banatuko dira hiriko hondartzetan. Banaketa uztailean eta abuztuan egingo da, egun bakoitzean Donostiako hiru hondartzetako batean. Zehazki, ItsaSOS kanpainari buruzko informazio-postu bat jarriko da, eta informazioa eta kono-hautsontziak eskuragarri egongo dira han, eskatzen dituenarentzat.



Gainera, 150 plaka jarri dira zoladuran, estolden eta ur-hustubideen ondoan. "Itsasoa hemen hasten da" mezuaren bidez, herritarrei ohartarazi nahi zaie paperontzietan edo edukiontzietan uzten ez diren hondakinek itsasoan amaitzen dutela. Plaka guztiak bi hizkuntzetan daude. Gehienak euskaraz eta gaztelaniaz, baina hondartzetatik gertuen dauden eremuetan ingelesez eta frantsesez ere badaude.

Horrez gain, ItsaSOS kanpainaren kartelak jarri dira, 3 m x 1,50 m neurrikoak, Kontxako hegaletan, Ondarretan eta Zurriolan, bai eta Agirre Lehendakariaren zubian ere, Arrauning-ekin elkarlanean.

Prensa oharra

Nota de prensa



Gogoan izan behar da azken urteotan hainbat neurri ezarri direla hondartzetan hondakin plastiko gutxiago sortzeko: jada ez da erabiltzen plastikozko edalontzirik hondartzetako postuetan, ezta plastikozko lastotxorik, platerik eta mahai-tresnarik ere. Helburu hori lortzeko egin zen Zero Plastik kanpaina: hotelek eta apartamentu turistikoek parte hartu zuten kanpaina horretan.

Irratien bidez, egun hauetan kanpainaren mezuak zabaltzen dira, bai eta sare sozialetan edo Dbuseko pantailetan ere.